

“BIDEOA GRABATZEKO PROZESUA IZAN DA ONENA”



Axular Lizeoa | Patxi Ormaetxea | Kosmolariak | Lehen Hezkuntza 1

Axular Lizeoko bi talde gogor lehiatu ziren Lehen Hezkuntza 1 kategoria irabazteko. Kosmolariak taldeak irabazi zuen azkenean. Patxi Ormaetxea arduradunaren erantzunak hemen.

Ikastetxe bereko bi talderen arteko lehia estuak motibazio berezia eragin du?

Ez.

Kosmodiseak aurrera egin ahala parte-hartze handiagoa izan dute ikasleek, edo, alderantziz, hasieran gogo handiz hasi eta ondoren hoztu egin dira?

Gero eta gehiago.

Lehiaketaren egiturak ikasturtearen jarduna oztopatzen du edo elkarren osagarri dira?

Elkarren osagarri dira.

Sari baten bidez aitortuak izateko aukerak motibatzen al ditu ikasleak?

Dudarik gabe, bai.

Eta irakasleak? Ikastetxea?

Bai, guztiok motibatzen gaitu.

Zein izan da Kosmodisean bizitutako esperientziaren onena?

Bideo grabaketaren prozesua.

Zailtasun handienak noiz eta zergatik sortu dira?

Wikian arazo teknikoak zirela eta (nabigatzaile ezberdinen arteko konpatibilitate eza, erabili behar genuen "aplikazioa" eta nabigatzaileen artekoa,...)

Edizio hau eta aurrekoak ikusi ondoren, ekimen honetan parte hartzearen esperientziak zein ondorio ekarri dizkie ikasleei?

Talde lanean jarduten ikasi dute.

Eta irakasleei?

Gu ere elkar ekitearen beharrea aurkitu gara.

Zortzigarren Kosmodisean parte hartzeko prest zaudete?

Bai.

Ekimena hobetzeko ekarpenik egin nahi duzue?

Wikian lan egiten aritzeko erraztasunak bideratzea (kontutan hartuta, irakasleon teknologia maila ez dela oso altua eta gure ikasleak, oraindik, gaztetxoak direla eta ez direla gai bakarrik jarduteko).